

SMART MOBILITY INDUSTRY

XEDEA: Programa honen xedea da Gipuzkoako enpresen eraldaketa sustatzea, beraien jarduera Smart Mobility Industry kontzeptuarekin erlazionatutako negozio-hobi berrietara bideratzeko, bereziki Elektromugikortasun, energia biltegitratze eta ibilgailu autonomoarekin erlazionaturiko jarduera sektoreetan.

ONURADUNAK:

Programaren onuradunak beren jarduera Gipuzkoan garatzen duten enpresak eta Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako irabazi asmorik gabeko entitateak dira.

Dirulaguntza hauetara enpresak bakarka edo entitate talde batek bultzatutako proiektuak aurkeztu daitezke. Talde proiektuetan, entitate batek lidergoa hartuko du eta eskaeraren arduraduna izango da.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Proiektuak modu zuzenean erlazionatuta egongo dira berrikuntza, ekonomia jarduera berri baten sorrera eta enpresa eraldaketa beharrekina, Smart Mobility Industry kontzeptuarekin erlazionatutako teknologia eta merkatu berriak ekiteko. Diruz lagunduko diren proiektuak honako alderdi hauekin lotuta daudenak izango dira:

- Enpresan teknologia eta produktu berri hauek txertatzeko bideragarritasun analisiak, enpresaren gaitasunen eta mugen analisiak, egungo instalazio eta antolakuntzaren egokitasunaren eta beharrezkoak diren aldaketen analisiak, lehiakideen analisiak, teknologien egungo egoeraren analisia.
- Produktu berrien garapena, eta egungoen moldaketa edo hobekuntza nabarmena.
- Proiektu pilotuak eta erakusteko proiektuak.
- Formakuntza espezifikoak elektromugikortasunarekin eta energia biltegitratzearekin erlazionaturiko teknologietan: networking jardunaldiak, ekitaldiak, tailerrak...
- Nazioarteko prospekzioa, sektorearen ezagutza hobetzeko; eta erreferentziako entitateetara gerturatzeko ekintzak, zuzenekoak eta alderantzizkoak.
- Gipuzkoako enpresei jarduera sektore berri hauetara modu eraginkorrean hurbiltzen lagunduko dien beste edozein proiektu.

DIRU LAGUNTZEN PORTZENTAJEAK ETA GEHIENEO ZENBATEKOAK:

Enpresetako barne langileen kostuek, diruz lagungarriak direnek, laguntza programa honen ondorioetarako, ezingo dute proiektu osoaren % 25 gaintitu, produktu berrien garapeneko atalean salbu. Programan parte hartzen duten irabazi asmorik gabeko entitateek ez dute muga hori izango.

Langileen gastuetan, barne langileak badira, enpresarentzako kostu errealean baloratuko da, eta hautakortzat joko dira, 40 euro/orduko gehieneko balio bateraino.

Azpikontzazioen kasuan: Ez da gastu hautagarria izango fakturako Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

ESKERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkeztu eta hurrengo egunetik hasi eta **2019ko apirilaren 15ean amaituko da.**

Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak. Eskaera orria, deialdian itsatsi tako ereduari jarraituz, eta hari erantsi tako dokumentazioa, ahal dela, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzen atarian: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>. Deialdiaren informazioa web orri horretan dago eskuragarri.